

1995eko APIRILAREN 3ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamabosteko apirilaren hiruan, gaueko bederatziak direnean, Alkatea: Belen Zabala Olano; Udalkideak: Jose Antonio Mintegi Arrate, Julian Zubeldia Aierbe, Mikel Zelaia Ezenarro, Castor Olaetxea Garaikoetxea, Ramon Bengoetxea Altuna; Iñigo Arreseigor Bengoetxea Udalkidea ez da agertu; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Idazkariak, aurreko saioen aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

1.994 URTEKO AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA ETA KONTU OROKORRA

Idazkari-Kontuhartzaileak, 1.994 urteko Aurrekontu Orokorraren Kontu Orokorra aurkeztu du.

Aurkeztutako Kontu Orokorrean sartzen diren agiriak, hauek dira:

1.994 urteko Aurrekontu Orokorraren Likidazioa.

1.994 urteko Aurrekontu Orokorraren Kreditu Aldaketa.

1.994 urteko Diru-Kontuak eta Ondare Adminstrazioko Kontuak.

1.994 urteko Aurrekontu Orokorraren Likidazioak emaitza hauek eman ditu:

- Sarrerren Gerakinak:

a) Kaxako Izakinak	11.369.543,-
b) Kobratzeko dauden Kredituak	2.824.749,-
SUMA	14.194.292,-

- Gastuen Gerakinak:

Ordaintzeko dauden Obligazioak 10.853.007,-

SUPERABITA 3.341.285,-

=====

1.994 urteko Aurrekontu Orokorraren Likidazio eta Kontu Orokorrari buruz, Idazkari-Kontuhartzaileak eta Hazienda Batzordeak luzatutako aldeko txostenak ikusirik, eta Kontu Orokorra bera azterturik, 1.994 URTEKO AURREKONTU OROKORRAREN LIKIDAZIOA ETA KONTU OROKORRA, aho batez onartuak izan dira.

1.995 URTEKO AURREKONTU OROKORRA

Ekonomi Batzordean aztertuz gero eta, Hazienda Lokalak erregulatzen dituen Abenduaren 28ko 39/1988 Legearen 149-4 artikulua eta Erregimen Lokaleko Oinarriak Arautzeko Apirilareko 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikulua eta Erregimen Lokaleko gaietan Apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legearen 126.1 artikuluen arabera, 1.995 Urterako Aurrekontu Orokorra aurkeztu da, honela geldituaz:

SARRERAK

1 Kap. - Zerga Zuzenak	8.544.989,- Pezta
2 Kap. - Zeharkako Zergak	100.000,- Pezta
3 Kap. - Tasak eta beste diru sarrerak .	3.080.551,- Pezta
4 Kap. - Transferentzi Korronteak	39.058.969,- Pezta
5 Kap. - Ondare Sarrerak	632.500,- Pezta
7 Kap. - Kapital Transferentziak	2.932.991,- Pezta
GUZTIRA	54.350.000,- Pezta

=====

IRTEERAK

1 Kap. - Pertsonalaren Lansariak	21.076.014,- Pezta
2 Kap. - Ondasun arrunt eta zerbitzuen.	15.126.618,- Pezta
3 Kap. - Interesak	2.545.538,- Pezta
4 Kap. - Transferentzi Korrontek	5.607.665,- Pezta
6 Kap. - Inbertsio Errealak	7.506.191,- Pezta
9 Kap. - Pasibo Finantzieroak	2.487.974,- Pezta
GUZTIRA	54.350.000,- Pezta

PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen Apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 90.1 eta 90.2 artikuluek eta Erregimen Lokaleko gaietan indarrean dauden legezko xedapenen Testu Bateragina onartuz, apirilaren 18ko 781/1986 Erret Dekretu Legegileko 126.1 artikuluko koerlatiboak erabakitzen dute, Udal Korporazioei dagokiela, Aurrekontuaren bidez, urteko Plantilla Organikoa eta Lanpostu Zerrendak onartzea, funtzionari, pertsonal laboral finko eta behin-behineko pertsonalari erreserbatuta dauden lanpostu guztiak barne izan behar dutelarik.

PLANTILLA ORGANIKOA ETA LANPOSTUEN ZERRENDA

<u>LANPOSTUAREN IZENA</u>	<u>LANPOSTU</u>		<u>KOP.-TALDEA-EGOERA-</u>		
<u>OHARRAK</u>					
Idazkari-Kontuhartzailea	1		B	J	70%
Gizarte Laguntzailea	1	B	Exzed.		16%
Lanetako Ofiziala	1		D	J	
Administrari Laguntzailea	1		D	J	
Garbitzailea	1		E	BB	
Etxez Etxeko Laguntzailea	1		E		BB 26,67%
Peoia	1		E		BB
Gizarte Laguntzailea	1	B		BB	36%

1.995 urterako Aurrekontu Orokorra, Egitaratzeko Oinarriak, Plantilla Organikoa eta Lanpostuen Zerrenda, aho batez onartu dira.

1.995-1-1-ERA UDAL ERROLDA BERRIKUNTZA

Idazkariak, hitza harturik, 1.995eko Urtarrilaren 1era eginiko Biztanleen Udal Erroldaren Berrikuntza aurkeztu du, eta honela gelditzen da:

	<u>Guztira</u>	<u>Gizonezkoak</u>	<u>Emakumezkoak</u>
1.994-01-01ra			
Eskubidedun Biztanlegoa	679	358	321
1.994 Urtean Altak	7	4	3
1.994 Urtean Bajak	23	2	4
1.995-01-01ra			
Eskubidedun Biztanlegoa	663	359	314

1.995ko Urtarrilaren 1era eginiko Biztanleen Udal Erroldaren Berrikuntza, aho batez onartu da.

UR KONTSORTZIOKO ESTATUTUEN ONARPENA

Alkateak, hitza harturik, Udal hau, Gipuzkoako Ur Kontsortzioan sartu ahal izateko, Ur Kontsortzioko Estatutuaren Proiektua aurkeztu du, bere onarpenerako:

GIPUZKOAKO UR KONTSORTZIOAREN ESTATUTOAK

I. KAPITULUA

ERAKETA, HELBURUA ETA ERREGIMEN JURIDIKOA

1. Art.- Kideak

- 1.- Honi erantsita doan zerrendan azaltzen diren Udalerri, Mankomunitateak eta Gipuzkoako Herrialde Historikoak Kontsortzioa eratzen dute, beren eskumeneko azpiegitura eta zerbitzuak elkartuta ezarri eta ustiatzeko xedez, Estatutu hauetako zazpigarren artikuluan adierazten diren helburuak lor daitezzen.
- 2.- Kide berrien onarpena eta orain daudenen uztea Estatutu hauen arabera egingo da.

2. Art.- Izena eta Sozietatearen Egoitza

- 1.- Kontsortzioaren izena Gipuzkoako Ur Kontsortzioa izango da.
- 2.- Sozietatearen egoitza Donostian egongo da.

3. Art.- Nortasun eta Gaitasun Juridikoa

Kontsortzioak nortasun juridiko propioa du eta bere helburuak lortzeko iharduteko gaitasun osoa.

4. Art.- Lurralde Eremua

Kontsortzioaren lurralde eremua, kasu bakoitzean osatuko duten Ente Lokalena izango da.

5. Art.- Antolakuntza eta Funtzionamendua

Kontsortzioaren antolakuntza, funtzionamendua eta erregimen juridikoa Estatutu hauetan aurrikusitakoari egokituko zaio eta supletorioki, Erregimen Lokaleko Oinarriak erregulatzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean, aurreko hori garatuko duten Autonomi Elkarteko Xedapenetan, entitate lokalei aplikagarri

zaizkien lege eta erregelamenduzko gainerako xedapenetan, eta Uren Legean eta gai hau erregulatuko duten gainerako Xedapen sektorialetan aurrikusitakoei.

6. Art.- Ahalmenak eta Konpetentziak

Estatutu hauetan seinalatutako helburuak lortzeko, Kontsortzioak bere baitan dituen Entitate Lokalak ordeztuko ditu, Autonomi Elkarteko Xedapenak emango dizkion ahalmenak beregain hartuko ditu eta horretarako beharko lituzkeen ondasun eta eskubideen titularitatea izango du.

7. Art.- Kontsortzioaren Helburuak

- 1.- Kontsortzioaren helburuak, lehen mailako sareetan, ur hornidura eta saneamenduaren azpiegitura jarri eta ustiatzea eta behar diren zerbitzuak ematea, guzti hau baldintza egokietan eta indarrean dagoen arautegiaren arabera.
- 2.- Horrela erabakiko lukeenean, Kontsortzioak ur zikloaren barruan beste fase batzuetara zabal ditzake helburuak, eskatuko luketen Udalekin adostasunean eta aldez aurretik hitzarmena egin ondoren haiekin.

8. Art.- Ahalmenak

- 1.- Kontsortzioak bere helburuak betetzeko ondoko hauek egin ditzake:
 - a) Indarrean dagoen legeriak eskaintzen dituen laguntza ekonomiko eta teknikoak eskatu eta eskuratzea Administrazio Zentral eta Autonomikotik edota hauekin kontzertatuko liratekeen bestelako batzuk.
 - b) Hornidura eta saneamendurako beharrezko kontzesio eta baimenak eskatu eta eskura ditzake.

- c) Zerbitzuak jarri eta ustiatzeko beharrezko inbertsioen finantzaketarako eragiketak egitea.
 - d) Azpiegiturak jarri eta kontserbatzeko beharrezko Proiektuak idatzi eta obrak egitea, plan egokien arabera.
 - e) Lehen mailako sareko hornidura eta saneamendu zerbitzuak kudeatzea.
 - f) Ur-zerbitzuko eta saneamenduko tarifen kobraketa kudeatzea.
 - g) Herrietako sareetako ur banaketa eta saneamendurako aholkularitza teknikoa ematea, horrela Udalak eskatu eta Kontsortzioak baimena emango balu.
 - h) Aurreko 2. artikuluko 2. apartaduan erabakitakoaren ondorioz beharrezko liratekeen bezainbat iharduketa egitea.
- 2.- Kontsortzioaren helburuak lortzeko zuzenean edo zeharka balio duten iharduera oro ere egin dezake, hala nola bertako behar propioak edota Kontsortzioko Entitatearen batena edo batzuenak asetzeko energia elektrikoa produzitu eta banatzea eta arazketa eta potabilizazio prozesuetan erabilitako erreaktiboen eta aipatu Entitateetatik lortutako produktu eta azpiproduktu guztien produkzio, transformazio edo aprobetxamendua.

9. Art.- Kudeaketa Era

- 1.- Kontsortzioak, bere helburuak gauzatzeko, kudeaketa era gisa, Sozietate Anonimoa erakide dezake Estatutu hauetako 18.2 artikuluko seinatzen duen quorum-aren bitartez eta Kontsortzioaren Batzarreko partaideek osatuko dute eskusiboki Sozietate Anonimo horren Batzorde Orokorra.

- 2.- Sozietate Anonimo hori bere estatutu propioez, legeria administratibo espezifikoaz eta Sozietate Anonimoei, orohar, aplikagarri diren Lege zibil eta merkantilez eraenduko da. Estatutu horiek Kontsortzioaren Batzarreak onartu beharko ditu.

10. Art.- Ekipo Teknikoa

Kontsortzioak edo zerbitzuak kudeatzeko eratuko den enteak, bere helburuak ahalik eta ondoen betetzeko, ekipa teknikoa era dezake emango zaizkion zereginak bete ditzan.

11. Art.- Lankidetzak

Kontsortzioak, era daitekeen enteak edota enteek eta kontsortziazatutako Ente Publikoen bertako Lehendakari, Alkate eta ordezkarien bidez elkarlanean arituko dira zerbitzuak ahalik eta ondoen eskaintzeko, beharrezko informazio eta laguntzaz emango zaizkielarik.

12. Art.- Iraunaldia

Kontsortzioaren iraunaldia eta indarraldia mugagabekoa da.

II. KAPITULUA.- GOBERNU ORGANOA

13. Art.- Kontsortzioko Zuzendaritza Organoak

- 1.- Kontsortzioko zuzendaritza organoak ondoko hauek dira:
- Batzarrea
 - Batzorde Exekutiboa
 - Lehendakaria, eta

- Lehendakariordea

- 2.- Zuzendaritza organo izantza izango du, baita halaber, Zuzendari Gerenteak.
- 3.- Zerbitzuak prestatzeko Sozietate Anonimoa eraikiko litzatekeen kasuan, kargu hau ere han integratuko da.

14. Art.- Batzarrea

- 1.- Kontsortzioaren goreneko organoa Batzarrea da eta Estatutu hauetan eta orenamendu juridikoak onartutako beste edozeinetan aurrikusitako konpetentzia eta eskurantzak izango ditu.
- 2.- Kontsortziazatutako den Ente bakoitzak ordezkari bat izango du Batzarrean, botu ponderatu erregimenean eta ondoren adieraziko diren terminoetan:
 - a) Udalen ordezkari Alkate edo Korporazioak, arautegi lokalari egokituz, izendatuko duen bertako kidea izango da, eta Udal bakoitzaren botu kopurua ondoko hau:

- 1.000 biztanle bitarteko udalerrak	Botu Bat
- 1.001 eta 2.500 biztanle bitartekoak	2 Botu
- 2.501 eta 5.000 biztanle bitartekoak	3 Botu
- 5.001 eta 10.000 biztanle bitartekoak	4 Botu
- 10.001 eta 15.000 biztanle bitartekoak	5 Botu
- 15.001 eta 25.000 biztanle bitartekoak	7 Botu
- 25.001 eta 50.000 biztanle bitartekoak	10 Botu

- 50.001 eta 100.000 biztanle bitartekoak 15 Botu

- 100.001 eta 200.000 biztanle bitartekoak 25 Botu

- b) Herrialde Historikoak izango duen botu kopurua, Udalerrien ordezkariak dituzten botu guztien herena izango da.

15. Art.- Kontsortziatutako Enteen Ordezkarien Hautaketa

- 1.- Korporazioak, gainera, ordezkariaren ordezeko bat ere izendatuko du, itutlarrak kargua galdu, kanpoan edo gaiso egongo litzatekeen kasuetarako.
- 2.- Foru Diputazioaren ordezkaria Diputatu Nagusia edota Diputazioak arautegi propioari egokituz, izendatuko lukeen Korporazio kidea izango da.

Diputazioak, gainera, ordezeko bat ere izendatuko du, aurreko zenbakian aipatutako kasuetarako.
- 3.- Udalen ordezkariak nahitaez beren kargua utzi egin beharko dute Udal horiek berriro egingo direnean. Kasu horietan Kontsortzioan dituzten ordezkariak, interinitate izaeraz, jarraitu egingo dute, Kontsortzioko zuzendaritza organoak eratu arte.

16. Art.- Batzarrearen Bilera

- 1.- Batzarrea hiruhilabetean behin bileraratuko da Lehendakariak dei egindako ohizko batzarraldian.
- 2.- Egokitzat hartuko liratekeen batzarraldiak ere egin daitezke, aparteko izaeraz, Lehendakariaren ekimenez, Batzarreko kide guztien laurenak idatziz eskatuz, edota Batzarrearen edo Batzorde Exekutiboaren erabakiz dei egin ondoren.

17. Art.- Deialdia eta Eguneko Gaizerrenda

- 1.- Batzarrearen bilera bakoitzerako deialdia nahikoa aurrerapenez egin behar da, ohizkoetan inoiz ez bost egun baino gutxiagoko aurrerapenez, ordezkari bakoitzak ukitu beharreko gai ezberdinak azter ditzan.
- 2.- Deialdian eguna, ordua eta bilera egingo den lekua, lehen nahiz bigarren deialdian, adieraziko dira eta ordezkarietara helerazi Udal egokien eta gainerako kontsortziatutako Entitateetako organoen bidez heleraz daiteke, horrela beteta geratzen delarik jakinerazpena kreditatzeko errekesitua.
- 3.- Deialdiak ukituko diren gaien zerrenda eramango du, bertan adieraziz espedienteak eta dokumentazio egokia ordezkarien esku egongo direla deialdia emango den egunetik aurrera.

18. Art.- Batzarrearen Eskurantzak

- 1.- Batzarrearen eskurantzak ondoko hauek dira:
 - a) Kontsortzioaren Estatutuen aldaketa proposatzea.
 - b) Kontsortzioa desegitea.
 - d) Kideak onartu eta banantzea.
 - e) Ordenantzak eta Barne Araudiak onartzea, era berean haien aldaketak ere.
 - f) Eskualdeko zonetan iharduteko plan eta programak onartzea eta hauen arteko lehentasun ordena finkatzea.
 - g) Sozietatearen eta zerbitzuen kudeaketarako Enteen Estatutuak onartzea.

- h) Aurrekontu propioa eta hau gauzatzeko Oinarriak onartzea.
 - i) Exakzioak eta tarifak ezartzea eta Ordenantza Fiskal egokiak eta berauen aldaketak ere onartzea.
 - j) Aurrekontuko eta ondarearen administrazioko Kontu Orokorra onartzea eta, kasua balitz, kudeaketarako Enteeena ere.
 - k) Zorpetzearen eta urteanitzeko gastu-konpromisuen muga finkatzea.
 - l) Lanpostu plantila onartzea.
 - m) Ondarea besterenganatu eta erostea, haren zenbatekoa ehun milioi pezeta baino gehiagokoa bada.
 - n) Beste Entitate Lokalei eta Administrazio Publikoei konpetentzi gatazkak planteatzea.
 - o) Estatutu hauetan aurrikusita dauden gainerakoak.
- 2.- Zuzenbidezko kideen botuen legezko gehiengo absolutoa beharko da a), b), c) h) eta j) apartaduetan seinalatutako gaietako erabakiak hartzeko.
- 3.- Batzarreak quorum kualifikatua eskatzen ez duten gaiak beste zuzendaritza organoren batean eskuorde ditzake.

19. Art.- Batzorde Exekutiboa

Batzorde Exekutiboa, Batzarreak barnean dituen kideen artean hautatutako 10 kidez gehienez osatua egongo da. Horietatik 9 Udalen ordezkari izango dira eta 1 Gipuzkoako Foru Diputaziokoa, eta lehen bederatzietako bakoitzari botu bat eta aipatu Diputazioari 3 botu emango zaie. Udalen ordezkari, dena dela, Estatutu

hauetako 14.2 a) artikuluan aipatzen diren bederatzi taldeetako bakoitzari kide bat emanaz osatuko da.

20. Art.- Bilerak

Batzorde Exekutiboak gutxienez hilean behin egingo du ohizko bilera, Estatutu hauetako 17. artikuluan adierazten den aurrerapenez eta behar den eran dei eginda. Aparteko batzarraldiak ere egingo ditu Lehendakariaren ekimenez, bertako kideen legezko kopuruaren laurdenak horrela eskatuz edota Batzorde Exekutiboak berak hartutako erabaki espresoaz.

Bileretara Zuzendari Gerentea ere joango da eta ahotsa izango du ez ordea boturik.

21. Art.- Batzorde Exekutiboaren Eskurantzak

1.- Batzorde Exekutiboaren eskurantzak ondoko hauek dira:

- a) Obra eta zerbitzuak kontratatzeko baldintza-pleguak onartu eta behi-betiko eskeintzea.
- b) Ordenazio-Plan Bereziak eta Obra-Proiektuak onartzea.
- c) Egintza administratibo eta judizialak egikaritzea.
- d) Hornidura zerbitzuak eta sare nagusian Saneamendua antolatzea.
- e) Pertsonala hautatzeko oinarriak onartzea.
- f) Zerbitzuen kostuei eta haien errendimenduen baloraketari buruzko estudioak onartzea.
- g) Pertsonal finko eta inoizkakoaren izendapena.

- h) Pertsonalaren ordainketak finkatzea.
 - i) Ondarea besterenganatu eta erostea, haren balioak 100 milioi gainditzen ez duen bitartean.
 - j) Aurrekontuaren likidazioa onartzea.
 - k) Batzarreari edo Lehendakariari espreski ematen ez zaizkion zereginak betetzea.
- 2.- Batzorde Exekutiboak bere eskurantzak eskuorde ditzake Lehendakari eta Zuzendari Gerenteagan.

22. Art.- Elkargoko Organoen Funtzionamendua

- 1.- Batzarrearen eta Batzorde Exekutiboaren batzaraldiak baliozko izan daitezen, haiek osatzen dituzten kideen erdia baino bat gehiago joatea da beharrezko eta quorum hau batzaraldi osoan zehar egon beharko du.
- 2.- Idazkari lanak Elkargoko Organoek izendatuko dutena izango da eta seinalatuko zaizkion funtzioak beteko ditu.
- 3.- Estatutu hauetan aurrikusten ez denetan, Ente Lokaletako beharrezko organoen funtzionamendurako arautegi lokalean ezarritakoa izango da aplikagarri Elkargoko Organoetan.

23. Art.- Lehendakaria eta Lehendakariordea

- 1.- Batzarreak hautatuko ditu bertako kideen artean bozketa zuzenaren bidez.
- 2.- Batzarreko kideak, Udal eta Mankomunitateen ordezkariak, dira bakarrik hautagai. Batzarreko ordezkari bakoitzak hautagai bati bakarrik emango dio bere botua papeleta baten bidez eta bere izen-deiturak adieraziz.

- 3.- Botu gehien jaso duen ordezkari-hautagaia izango da izendatua, Batzarrean botua emateko eskubidea duten ordezkarien artean legezko gehiengo absolutoa jasoko balu. Exigitzen den legezko gehiengoa ez balu lortuko, berriro egingo da bozketa eta izendatu boturik gehien lortuko duena izendatuko da.
- 4.- Batzarreko ordezkarien botuen artean, bigarren botu kopururik haundiena jaso duen ordezkari-hautagaia izango da lehendakariorde izendatua.
- 5.- Ez dira inola ere Eskualde berekoak izango Lehendakaria eta Lehendakariordea. Horrela gertatuko balitz, lortutako botuen ordenan kolisio hori ekidin arte jetsiz erabakiko da.

24. Art.- Lehendakariaren Eskurantzak

- 1.- Lehendakariaren eskurantzak ondoko hauek izango dira:
 - a) Batzarre eta Batzorde Exekutiboko batzarraldietarako deia egitea, mahaiburu izatea eta bukatutzat ematea eta deliberazioak zuzentzea, enpateak kaitate-botuaren bidez erabaki ditzakeelarik.
 - b) Batzarre eta Batzorde Exekutiboaren erabakiak betearaztea.
 - c) Kontsortzioa ofizial eta administratiboki ordezkatzeari negozio juridiko mota guztietan, beharrezko litzatekeen kasuetan Kontsortzioa ordezkatu eta defendatuko duten Prokuradore eta Letratuei aginduak emateko ahalmena izanik.
 - d) Kontsortzioaren kargu dauden zerbitzuak zuzendu eta ikuskatzea, horretarako erabaki egokiak hartuz.
 - e) Ordainketak agintzea eta Kontsortzioko Aurrekontuko eta Ondarearen Administrazioako kontuak ematea.

- f) Aurrekontuetan espezifikoki aurrikusitako ohizko izaerazko gastuak eta Batzarreak seinalatuko duen zenbatekoa gainditu ez duten ohizko izaerazko generikoak ere onartzea.
 - g) Bere erantzukizunpean eta Batzarreak emandako jarraibideen barruan, Kontsortzioko arazoek eskatuko luketen presako neurriak hartzea bere kabuz, egingo den lehen batzarraldian Batzarre edo Batzorde Exekutiboari berri emanez.
 - h) Egintza administratibo eta judizialak erabiltzea presako kasuetan, egingo den lehen batzarraldian Batzorde Exekutiboari berri emanez.
 - i) Aurrekontu propioa eratzea.
- 2.- Lehendakariak bere eskurantzak eskuordetu ahal izango ditu Zuzendari Gerentearengan, a), c), g) eta h) apartaduetan daudenak salbuetsiz.

25. Art.- Lehendakariordearen Eskurantzak

Ausentzia, gaixotasun edo eragozpen kasuetan, Lehendakaria funtzio guztietan ordezkatzea dagokio Lehendakariordeari eta Lehendakariaren funtzioak betetzea bakantea legokeenean.

26. Art.- Zuzendari Gerentea

- 1.- Kontsortzioko Batzarreak izendatu eta apartatuko du Zuzendari Gerentea. Batzarre honek berak zehaztuko ditu lan-erregimen eta kondizioak eta bete behar dituen funtzioak seinalatuko.
- 2.- Zuzendari Gerenteak, gainera, zuzendaritzako gainerako organoen eskuordetuko dizkioten funtzioak ere beteko ditu.

III. KAPITULUA

ERREGIMEN EKONOMIKOA

27. Art.- Baliabide Ekonomikoak

- 1.- Kongsortzioaren baliabide ekonomikoak ondoko hauek izango dira:
 - a) Hornidura eta Saneamendu zerbitzuen tarifetatik datozenak.
 - b) Kongsortzioko enteen edota beste entitate eta organismo publiko eta pribatuen ekarpenetik etorriko diren sarrerak.
 - c) Kreditu-eragiketetatik datozenak.
 - d) Indarrean dagoen legerian, Ente Publikoak finantzatzeko, aurrikusita dauden zuzenbide publiko edo pribatuko gainerako sarrerak.
- 2.- Kongsortzioko Udal eta Mnakomunitateen ekarpenak eska daitezke derrigorrezko izaeraz, 1. apartaduko sarrerak nahi ez liritekeenean eta Estatutu hauetako 18.2. Artikuluan seinalatutako quorum-az Batzarreak horrela erabaki ondoren.

28. Art.- Tarifak

Hornidura eta saneamendu zerbitzuen tarifak barne lehen ezarpena, ustiapen-kostuak, kontserbazioa eta mantenimendua, etorkizuneko haunditzeetarako erreserba edukitzeko kuota posibleak eta kreditu propio edo Kongsortzioko Udal eta Mnakomunitateen ekarpenetatik datozten finantz gastuak izango ditu.

29. Art.- Tarifak Finkatzeko Erizpideak

Kongsortzioan aplikatu beharko diren tarifak finkatzeko ondoko erizpideak izango dira gogoan:

- a) Kontsortzioak eskainiko dituen zerbitzuen tarifak ez dira desberdinduko Arro bakoitzeko Udalerrien arabera, arro bakoitzetik Kontsortzioan dauden Udallerri guztiei berdina aplikatuko zaielarik.

Horretarako Arro eta Eskualde bakoitzean egindako inbertsioen kostuaren, eta era berean zerbitzuaren kostuaren, kontabilitate banandua eramango da, haien kostuak birbanatzeko.

- b) Kontsortzioaren funtsezko asmoa izango da zerbitzuen tarifak Herrialde Historiko osorako antzerakoak izan daitezela lortzea eta sare nagusian neurtutako ur-emari guztiari aplikatuko zaizkio.
- c) Industri saneamenduko tarifa karga kutsatzailearen arabera ezarriko da, Kontsortzioak ezarriko dituen baremoen arabera.

30. Art.- Tarifan Ezarpena

Tarifak mailaka ezar daitezke Kontsortzioak erabakitako egunetik aurrera.

31. Art.- Alta eta Bajako Tarifa

Kontsortzioak erabiltzaileari aplikatuko dizkion hornidura-tarifek sare nagusikoen prezioa izango dute barne, banaketa-gastuak eta tarifetan azaltzen diren gainerako kontzeptuengatik gastuak, baja-sarean dauden galerak barne, gehituta.

32. Art.- Diru Kenketak

Foru Diputazio hau, Kontsortzioak horrela eskatuz, baimenduta dago Udalei Zerga Itunduetako partaidetzagatik legozkiekeen ekarpenetatik beharrezko diren zenbatekoak kentzeko, haien kargurako tarifen ordainketa eta Estatutu hauen 27. artikulua arabera obligaziozko izaeraz ezarriko zaizkien ekarpenak efektibo egiteko.

33. Art.- Mozkinak

Inoiz ez da Kontsortzioan integratuta dauden entitateen artean mozkinik banatuko. Mozkinak tarifak gutxiago igotzeko edo gutxitzeko erabiliko dira, edota haundipen berrietarako erreserba-fondoa eraikitzeko izango dira.

IV. KAPITULUA

HIRIGINTZA KOORDINAZIOA

34. Art.- Lankidetzak

Kontsortzioak eta bertako kide diren Entitateek, elkarri legozkiekeen hirigintza arloko gaietan, aktiboki lankide izateko konpromisua hartzen dute. Udalek kontsulta egingo diote Kontsortzioari, honi iku liezaizkioketen gaietan plangintza tresnak egin edo aldatzeko orduan.

35. Art.- Ur-Emariak

Kontsortzioa eratzeko unean honritu edo hustuko diren ur-emariak, leudekeen baliabideak utziko luketen neurrian, egungo hirigintzako beharrei dagozkienak izango dira, Kontsortzioko Batzarreak erabakiko dituen obra eta inbertsio planen arabera.

36. Art.- Printzipio Inspiratzaileak

Nolanahi ere Kontsortzioak solidaritate, ekitate eta errealismo printzipioetan oinarrituz ihardungo du, gaur egun bete gabe dauden beharrak eta etorkizunerako aurrikuspenak asetzera proiektatuz hango obra eta inbertsioak.

37. Art.- Aldez Aurretiko Baldintzak

Ez da ur-emaririk hornituko ezta isurketarik onartu edo zerbitzurik prestatuko hirigintzako organismo eskudunek aldez aurretik baimendu gabeko

urbanizazio edo eraikuntza berrietan, aplikagarri den hirigintzako arautegiaren arabera, eta sustatzaile edo eraikitzaileek beharrezko ekarpen ekonomikoa aurretik egin gabe, Kontsortzioak izaera orokorrez ezarri edo onartuko dituen baremo eta kuotak aplikatuz.

38. Art.- Manuzko Txostena

Kontsortzioko Korporazioek, lurzoru urbanizagarrian nahiz, kasua balitz, lurzoru hiritarrean hirigintzako proiektuak onartu aurretik, eta dena dela eraikitzeko baimenak eman aurretik, zerbitzuen entitate kudeatzaileari bere konpetentziako gaiei buruzko informe eskatu beharko diote aginduz.

Informe horrek ez du izaera loteslerik izango.

39. Art.- Ordenantzak

Kontsortzioko Udalen Ordenantza guztiek, Kontsortzioaren konpetentziako gaietan, honen Ordenantzei eta, orohar, arau teknikoek egokituta egon beharko dute, Entitate bakoitzak dituen funtsezko berezitasunen kalterik gabe, eta horretarako Udal horiek beren ordenantzetan Kontsortzioak edo Elkarte Kudeatzaileak seinalatuko dituen zehaztapenak sartuko dituzte.

V. KAPITULUA

KONTSORTZIOA HAUNDITZEA, MURRIZTEA ETA DESEGITEA

40. Art.- Haunditzea

Udal berriak Kontsortzioan onartzeko eskaera, beharrezko quorum-az Udal Batzarreak erabaki ondoren, jendeaurrean erakutsiko da hamabost eguneko epean.

Ebazpen egokia Batzarrean hartuko du, Estatu hauetako 18. artikulua arabera.

41. Art.- Murriztea

Kontsortzioko Udal edo Mankomunitate baten banantzeko eskaera, beharrezko quorum-az Udal Batzarreak edo Organo Eskudunak erabakia hartu ondoren, bere eremuan zerbitzuak zuzen eman ahal izango dituela eta banatzearekin ez dituela Kontsortzioaren interes orokorrak kaltetuko bermatu beharko du. Eskaera jendaurrean erakutsiko da hamabost eguneko epean.

Ebazpen egokia Batzarreak hartuko du, Estatutu hauen 18. artikulua arabera eta bertan zehaztuko dira, kasua balitz, banatzearen ondorioak ondasun, eskubide eta obligazioei dagokienez.

Banantzea Kontsortzioko beste kideek sustatuko balute, Batzarrearen ebazpenera jarriko da zuzenean.

42. Art.- Desegitea

1.- Kontsortzioa desegiteko kausa dira:

- a) Lege Xedapena.
- b) Kontsortzioko Entitate kopurua aldatzea, aldaketa horren ondorioz maila eta izaera berdineko kideak geratuko liratekeenean bakarrik.
- c) Kontsortzioaren jarraipena interes publikoaren kontrako bihurtzea ekarriko luketen zirkunstantzien pilaketa.

2.- Kausa horietakoren baten oinarritutako desegintza proposamena Batzarreari, gutxienez, hango kideen herenak aurkeztu beharko dio, aspektu juridiko, ekonomiko eta teknikoei buruzko memoria zurigarria erantsiz.

- 3.- Desegiteko proposamen hori horretarako dei egindako aparteko batzarraldian aztertuko du Batzarreak eta Estatutu hauetako 18. artikulua araberan emango du erabakia.

43. Art.- Likidazioa

Desegintza erabaki ondoren, Batzorde Exekutiboa Batzorde Likidatzaile gisa eratuko da obligazioen likidazioa eta ordainketa, eskubide eta errenten likidazioa eta kobrantza eta ondarearen eta desegiteak ekarriko dituen kargen banaketa egiteko xedez, hartuko dituen ebazpenak betetzera desegindako Kontsortzioko kide guztiak behartuko dituelarik.

Dena dela, desegite unean Kontsortzian integratutako Entitateei itzuli egingo zaizkie jarri dituzten ondasun eta eskubideak, zurituko luketen behar bezala funtsatutako kausa bereziak salbuetsiz.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Kontsortzian Euskadiko Komunitate Autonomoa edo Estatuko Administrazioa sartuko balitz, ondoren zehazten diren arauak aplikatuko dira, Estatutu hauetako 14, 15 eta 19. artikuluek xedatutakoari dagokionean:

Lehena.- Aipatu Administrazioetako bakoitzak edo berorietatik Kontsortzian sartzen denak ordezkari bat izango du Batzarrean, bertan erabakitzen den botu kopuruarekin.

Bigarrena.- Bi Administrazioek edo horietatik sartzen denak ordezkari eta ordezkari bat izendatuko dituzte Kontsortziorako.

Hirugarrena.- Administrazio horietako bakoitzak edo horietatik sartzen denak ordezkari bat eta botu bat izango du Batzorde Exekutiboan, eta kasu horretan 12 edo 11 izango dira batzordekideak.

XEDAPEN IRAGANKORRAK

LEHENA

Estatutu hauetako 2.2 artikulua aipatzen duen Kontsortzioaren helbidea, behin-behineko izaeraz, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Jauregian edo honek erabakiko lukeen lokalean egongo da.

BIGARRENA

Udal berriak onartzeko eskatzen diren errekesituak bete ondoren, kontsortziatutako Administrazioen helburuekin bat datozen lukrurik gabeko bestelako Entitateak ere sar daitezke Kontsortzioan kide gisa.

- 1.- Kontsortzioak, hornidura eta saneamenduko sare nagusian Udalek beren baliabideak erabiliz egindako inbertsioen kostuak, nahiz zuzenean nahi, egoki denean, doakien Manokomunitateen bidez, itzuli egingo dizkie, Kontsortzioak, Batzarrearen erabakiaren bidez, finkatuko duen eran, balorazio eguneratuan, epetan eta gainerako baldintzetan.
- 2.- "Barrendiola", "Aia-Iturrieta", "Añarbe" eta "Txingudi" mankomunitateek ez dute ur eta, kasua balitz, saneamenduko sare nagusiari atxekitako zerbitzurik emango Kontsortzioko partaide egingo direnetik aurrera, honek bere gain hartuko bait ditu funtzio horiek.
- 3.- Sare nagusi, ur-biltegi eta urtegien eraiketa eta abarretako oinegitura obrak finantzatzeko xedez kontzertatuko diren kreditu eragiketak itzultzeko debengatuko diren urteken kargu egingo da Kontsortzioa.
- 4.- Ur sare nagusiak partzialki edo oso-osorik hartuko dituen instalazio, bitarteko material, proiektu eta bar guztiak, iturburuak, urtegiak, putzuak, kontzesioak, arazketa deposituak, hodi sareak, igotzeko ekipoak, hariteria elektrikoak eta sare nagusiko gainerako elementuak alegia, Kontsortziora transferituko dira haien inbentario xehekatua egin ondoren.

- 5.- Mankomunitateak eskualdatuko diren obra eta instalazioen zaintza, mantenimendu eta kontserbaziorako duten pertsonala Kontsortzioari atxekita geratuko da.

LAUGARRENA

- 1.- Foru Diputazioak ur kontzesioak, eraikitako edo eraikitzen ari den urtegiak, egindako eta egiten ari den hodi lineak, ur arazlekuak, kolektoreak, itsaspeko isurlea eta ur sare nagusiko gainerako instalazioak transferitzen dizkio Kontsortzioari.
- 2.- Foru Diputazioak eskualdatuko dituen obra eta instalazioen zaintza, mantenimendu eta kontserbatziorako duen pertsonala Kontsortzioari atxekita geratuko da.
- 3.- Kontsortzioak Gipuzkoako Foru Diputazioari finantz kargen zenbatekoa itzuliko dio, instalazio horiek osorik edo partzialki finantzatzeko Foru Diputazioak 1.989ko Urtarrilaren 1etik aurrera kontzertatutako kreditu eragiketen amortizazioagatik debengatuz joango diren neurrian.

BOSTGARRENA

Urumea Ibaiko kolektorearen Erabiltzaileen Komunitatearen instalazioak barnean sartzeko era aztertuko du Kontsortzioak.

SEIGARRENA

Sare Nagusiaren eraiketa eta/edo mantenimendu lanak egiten ari diren organismo publiko eta entitateak lankidetzat teknikoko hitzarmenak egin ditzakete, batez ere Kontsortzioaren egitura osoa eratzeko lehen fase honetan.

Guzti hori eztabaidatu ondoren, aho batez, erabaki da:

- 1.- Lehen mailako sareetan, ur hornidura eta saneamenduaren azpiegitura jarri eta ustiatzea eta behar diren zerbitzuak emateko sortutako, Gipuzkoako Ur Kontsortzioan, eskubide osozko partaidea izateko, sarrera eskatzea.
- 2.- Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren Estatutuei, lehen onarpena ematea.
- 3.- Erregimen Lokaleko gaien gaineko xedapenen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Errege Dekretu Legegileko 35.3 artikulua exijitzen duenari jarraiki; Gipuzkoako Ur Kontsortzioko Estatutuen, haserako onarpena jendaurrean jartzea, hilabeteko epean, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo lanegunetik aurrera kontatzen hasita. Epe hori igaro eta inolako erreklamazio edo iradokizunik jasotzen ez bada, behin-betirako onartutzat hartuko dira.
- 4.- Aipatutako Estatutuen 14.2 a) artikulua dioenaren arabera, BELEN ZABALA OLANO Alkatea izendatzen da, Gipuzkoako Ur Kontsortzioan Udalaren ordezkari bezela iharduteko eta estatutu hoi 15.1 artikulua aipatzen dituen kasuetarako, Jose Antonio Mintegi Arrate Jauna, ordezkotzat iharduteko.

UEMAKO ESTATUTU BERRIEN ONARPENA

Aurrez onartu ziren, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Estatutuak errekurrituak izan zirela eta, aldaketa batzu egitea beharrezko ikusi zen, legez ihardun ahal izateko.

Hori dela eta, Alkateak, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Estatutu berriak aurkeztu ditu:

UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAREN ESTATUTUAK

I. KAPITULUA

Eraketa, Izena eta Helburuak

1. Art.- Aizarnazabal, Altzo, Aulesti, Baliarrain, Bermeo, Dima, Errezil, Etxebarri, Gaintza, Gatika, Gaztelu, Gizaburuaga, Goizueta, Leaburu-Txarama, Leitza, Lizartza, Munitibar-Arbatzegi-Gerrikaitz, Orendain, Orexa, Urdiain, Zeanuri eta Zubietako Udalek, berezko hizkuntza euskara dutela kontutan izanik eta Udalaren barne ihardueran zein erabileran normalkuntza prozesuak eskatzen duen ahalegin bereziaz oharturik, Udal Euskaldunen Mankomunitatea sortzeko erabakia hartu dute.
2. Art.- a) Aurreko artikuluan aipatutako erakunde lokalari "Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea" (UEMA) izena emango zaio, eta hasieran Altzoko Udaletxean kokatuko du bere egoitza.

b) UEMAk estatutu hauek agertzen dutenaren arabera ihardungo du.
3. Art.- Estatutu hauek martxan jartzen direnetik izango du UEMAk legezko nortasun eta gaitasun osoa bere helburuak betetzeko, mankomunitateek gaur dituzten eta etorkizunean izango dituzten arauak onartuz.

II. KAPITULUA

Helburuez eta betebeharez

4. Art.- 1) UEMArekin helburu orokorra, bertako partaide diren Udal Administrazioen barne iharduera zein Udalerrietako gizarte bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera ahalbideratzeko eta herritarren hizkuntza eskubideak bermatzeko zerbitzuak eskaintzea da.
- 2) UEMAk partaide diren udalerrietako berezko hizkuntza euskara izanik, Udal hauen helburu zehatza, Udalean eta Udalerrian euskararen erabilera bermatzea da, euskara administrazioko eta gizarte harremanetarako hizkuntza bihurtuz. Beti ere, euskara ezagutzen ez duten herritarren eskubideak errespetatuko dira.

- 3) UEMako udalek, ikastetxe publikoetako ordezkariak organuetan parte hartuz, ikastetxeetan euskararen erabileraren normalizazioa bultzatuko dute, eta udalerrian egin daitezken ikasketa guztiak euskaraz egin ahal izan daitezkeen bere esku dauden neurriak hartuko dituzte.
- 4) Bertako partaide diren udalen ahaleginek emaitza maila gorena izan dezaten, UEMA-k hauen ekintzak koordinatu, eta beharrezko den laguntza teknikoa eskainiko die.

III. KAPITULUA

Indar Epea

5. Art.- UEMA indarrean egongo da bertako partaideek Batzar Nagusian kontraktorik gehiengo osoz erabakitzen ez duten bitartean. Mugarik gabeko epea izango du, eta Udalek Estatutu hauek onartzen duten egun beretik izango da indarrean.

IV. KAPITULUA

Organoak eta barne funtzionamendua

1. SEKZIOA: "Organuei buruz"

6. Art.- UEMako organoak honako hauek dira:

- a) Batzar Nagusia
- b) Lehendakaria
- c) Zuzendaritza Batzordea
- d) Aholku Batzordea

Hala izanik ere, Zuzendaritza Batzordeak sortu ahal izango du Lan Batzorde bereziren bat, edo egoki deritzaion antolakuntza osagarriren bat, Batzar Nagusiaren onespenerekin.

2. SEKZIOA: Batzar Nagusiari buruz

7. Art.- BATZAR NAGUSIA, UEMAko partaide diren Udal guztietako ordezkariak osatzen dute, eta berari dagokio Estatutuen aldaketa egitea eta testu berriak onartzea.

8. Art.- BATZAR NAGUSIAN mankomunitatea osatzen duten Udalen ordezkariak, ondorengo mailaketari dagozkionak izango dira:

* 1.000 arteko Udalak Kideak, 1

* 1.001etik 2.500rako Udalak Kideak, 2

* 2.501etik 5.000rako Udalak Kideak, 3

* 5.001etik 10.000rako Udalak .. Kideak, 4

* 10.001etik gorako Udalak Kideak, 5

Batzar Nagusiko bileratan ordezkari bakoitzak boto bakarra emateko eskubidea izango du.

9. Art.- 1) Aurreko artikuluan aipatutako kideak Udalerri bakoitzeko Osoko Bilkuran izendatuko dira zinegotzien artetik, ondorengo baldintzen arabera:

a) Kide bat edo bi izendatu behar duten Udalerrietan legezko zinegotzi kopuruaren gehiengo osoz aukeratuko da. Gehiengo hau lortuko ez balitz, handik 24 orduz gero gutxienez, beste bozketa

bati ekingo zaio. Kasu honetan, gehiengo soila nahikoa izango litzatekeelarik.

- b) Udal Batzarretako partaideen agintaldia bukatu ondoren, Udal Batzar berria osatu eta Mankomunitaterako ordezkaria izendatu arte kulturaz eta hizkuntzaz arduratzen den zinegotziak beteko du lan hau ordezkaria izendatzen tarterarte.

10. Art.- BATZAR NAGUSIAren funtzionamendu araua honelako izango da:

- a) BATZAR NAGUSIAk UEMAko Lehendakariak zuzenduko ditu idazkariaren laguntza izango duelarik.
- b) BATZAR NAGUSIAk Ohizko eta Ohiz Kanpoko batzarrez ihardungo du. Deialdia Zuzendaritza Batzordeari dagokio eta honen izenean Lehendakariak luzatuko ditu.
- c) BATZAR NAGUSIAk urtean behin egingo du ohizko batzarra, urteko gestioaz eta aurrekontuaz eztabaidatzeko behintzat. Eta ohiz kanpoko Zuzendaritza Batzordeak egoki deritzon guztietan edo kide osoen bostenak edo lau Udaletako ordezkariak eskatuta, azken kasu honetan, Zuzendaritza Batzordea errekeritua izan den momentutik hogeitamar egun ditu Batzar Nagusiaren deia zabaltzeko, beti ere hurrengo parrafuak xedatzen duena errespetatuz.
- d) Gutxienez, hilabete aurretik egingo dira batzarretarako deiak, gai garrantzitsuen inguruan Udalek Pleno edo Eledunen Batzarrez erabakia hartzeko denbora izan dezaten.
- e) Batzarra indar osoz eratzeko, ohizkoa edo ohiz kanpoko delarik, kide osoen gehiengoa bertan izatea da beharrezko, lehenengo deian; ordubete geroago, bigarren deian, bertaratzen direnen kopurua herena izanda, egingo da.

- f) Aurreko artikuluetan horrela xedatuta egon arrear, Batzar Nagusia deituztat eta behar bezala eratutzat emango da, kide guztiak bilduak aurkitzen direnean eta Batzar Nagusia eratutzat ahobatez ematen dutenean.
- g) Premiazko gairen bat sortzen denean, Batzar Nagusia eratutzat hartzeko eta gaia eztabaidatu ahal izateko Batzar Nagusiko kideen erdiak gei batek batzarraren hasieran berretsi beharko du premiazkotasun hori.

11. Art.- BATZAR NAGUSIAren aztergai eta erabakitze moduari dagokionez:

- a) Bai ohizko batzarrerako zein ohiz kanporako deiaz batera Aztergai-zerrenda igorriko da. Erabiliko diren gaiak, Zuzendaritza Batzordeak onartuko ditu. Eta nahita nahi-ez barneratu beharrekoa izango da Mankomunitatearen helburuetarikoak izan eta kide osoen bostenak, edo lau Herrietako ordezkariak, gutxienez eskatutakoa.
- b) Batzarrak aztergai zerrendako gai guztiak aztertu eta erabakiko ditu, horretarako aurrera begira bigarren bilera berria egin behar badu ere.

12. Art.- BATZAR NAGUSIAk erabakiak gehiengo osoz nahiz beste modu batez hartuko ditu, honakoaren arabera:

- a) Eztabaidak Lehendakariak zuzenduko ditu eta orokorki, emandako botuen gehiengo soilaz hartuko dira erabakiak.
- b) Emandako botuen gehiengo soila baino zabalagoa den bi herenekoa edo lau bostenekoa behar izango da Estatutuak

berritzeko edo elkartea desegitea erabakitzeko, hurrenez hurren.

- c) Batzar Nagusietako sesioetako aktak jasoko dira, dagokien liburuan bilduz, beti ere Lehendakari eta Idazkarien sinadurarekin.
- d) Batzar Nagusietako sesioetako Aktak, Mankomunitatea osatzen duten Udal guztiei bidaliko zaizkie.

13. Art.- BATZAR NAGUSIAk, Mankomunitatearen organu soberano bezala, izaera erabakitzailea izango du edozein gairi buruz eztabaidatzeko, beti ere hartutako akordioak, Autonomia Lokalaren aurka joaten ez diren bitartean.

Hartu beharreko erabakia Autonomia Lokalaren printzipioaren aurka joango litzatekeela joko balitz, udal ordezkariak dagokion Udal Batzarre osoaren oneritzia jaso beharko du. Bestelakoetan, berehala emango dio ordezkariak Udalari hartutako erabakiaren berri.

BATZAR NAGUSIAri konkretuki, Estatutuen aldaketa, testu berriak onartzea, Udal berrien sarreran aldeko erabakia hartzea, Zuzendaritza Batzordearen kideak onartzea eta lan hortatik kentzea, aurrekontuak onartzea, Zuzendaritza Batzordeak zehaztutako urteko kontratazio-oinarriak onartzea, langileen kontratazioa onartzea, mailegu eta kreditu eragiketak onartzea, UEMAko ondarea onartzea, eskuratzea eta besterenganatzea, eta UEMAko helburuak eskuratzeko egitasmoak onartzea Zuzendaritza Batzordeak proposatuz, dagokio.

3. SEKZIOA: Gainontzeko Organuei Buruz

14. Art.- ZUZENDARITZA BATZORDEA osatuko dute:

- a) Lehendakariak
- b) Batzar Nagusiak Udal ordezkarien artetik aukeratutako sei kidek, lurralde guztietatik ordezkaturik egon behar dutelarik.

15. Art.- LEHENDAKARIA, Batzar Nagusiak hautatuko du bere kideen artetik eta botuen gehiengo osoz. Gehiengo osoa lortuko ez balitz, atsedenaldi bat egingo litzateke eta eztabaidaren ondoren, gehiengo soilaz. Lehendakaria Udaldi baterako aukeratuko litzateke.

Batzar Nagusiak Zuzendaritza Batzordea osatzen dutenen artetik LEHENDAKARI ORDEA izendatuko du, Lehendakaria ez dagoenean edo eta berriak kargua hartu bitartean Lehendakaria ordezkatzeko, azken honek dituen funtzio guztietan ordezkatuko duelarik.

16. Art.- Lehendakariari dagokio:

- 1) UEMAko aginte eta administrazioa zuzentzea.
- 2) Batzar Nagusi eta Zuzendaritza Batzordeko deialdiak izenpetzea, bilerak zuzentzea eta amaitutzat ematea.
- 3) UEMAko lan zerbitzu eta ekintzak zuzentzea, ikuskatzea eta bultzatzea.
- 4) Ordain aginduak eta kontuak izenpetzea.
- 5) Edonolako lege egintzan edo lege arazoetan UEMAko ordezkariak zuzentzea.
- 6) Mankomunitatearen iharduera ekonomikoa zuzendu eta urteko aurrekontua, kitapena eta balantze ekonomikoa azaltzea.

Lan guzti hauek egiteko, Lehendakariak Idakzariaren laguntza izango du.

17. Art.- ZUZENDARITZA BATZORDEA hilean behin bilduko da. Hala ere beharrezkotzat jotzen diren batzarrak egin ahal izango ditu Lehendakariaren eskariaz edo Zuzendaritza Batzordea osatzen duten partaideen herenaz.

Deialdiaren egun eta zerrendaren aukera Lehendakariaren esku daude. Hala ere, deialdia Zuzendaritza Batzordeko partaide bakoizak nahiko denborarekin jasoko du gai zerrendako puntuak aztertzeko denbora izan dezan. Horregaitik, deialdia gutxienezko hiru egunetako epearekin banatuko da, eztabaidatuko diren materialekin batera. Deialdian Batzar-Tokia eta bi deialdi agertuko dira.

18. Art.- ZUZENDARITZA BATZORDEAren erabakiak normalean gehiengo arruntaz hartuko dira, hala ere, behean aipatzen diren kasuetan gutxienez gehiengo osoa eta Aholku Batzordearen aldeko txostena ezinbestekoak izango dira:

- 1) Ordenantzen, Estatutuen edo Araudien onarpen proposamena.
- 2) UEMAko partaide berrien onarpena edo kanporatze proposamena.
- 3) Estatutuen aldaketa proposamena.
- 4) Aurrekontuen onarpen proposamena.

19. Art.- ZUZENDARITZA BATZORDEAri dagokio, UEMAko funtzionamendua ziurtatzea, horretarako UEMA zuzentzeko eta

ordezkatzeko beharrezkoak diren gaitasun guztiak izango ditu, beti ere Legeak eta Estatutu hauek, Batzar Nagusiari edo Udalerri bakoitzeko Udalbatzei dagokiela erizten denean salbu.

Zuzendaritza Batzordearen gaitasunen artean hauek ditugu:

- 1) Aurrekontua egikaritzea.
- 2) Mankomunitateko langileak kontratatzea.
- 3) Estatutuen aldaketa edo berrikuntza proposatzea.
- 4) UEMAko helburuak eskuratzeko egitasmoak proposatzea.
- 5) Batzar Nagusiak erabaki dezan, UEMAko kideak onartzeko edo kanporatzeko proposamenak luzatzea.
- 6) UEMAko langileen sarrera azterketa araupetuko dituzten oinarriak prestatzea.
- 7) Barne araudia onartzea eta hala behar izanez gero, laguntza batzordea eta antolakuntza osagarriak sortzea. Gainera, aipatutako batzordeetako kideak izendatuko ditu berau osatzen bada.

20. Art.- IDAZKARIA, UEMAk egoitza duen Udaletxean idazkari lana betetzen duena izango da.

21. Art.- IDAZKARIAri dagokio:

- 1) Lehendakariari, Batzarretako partaide eta Zuzendaritza Batzordeko partaideei ahoku ematea, Estatutu eta Ordenantzen arabera zein den bete beharra azpimarratuz.

- 2) Dokumentazio eta eskaera komunikazio guztiak zuzentzea eta artxibatzea, lehendakaria informatu ondoren.
- 3) Batzar Nagusi edo Zuzendaritza Batzordeko bileren aktak egitea eta UEMAk hartutako erabakien ziurtagiriak prestatzea eta partaideen artean banatzea.
- 4) Diru kontuak eguneratuak edukitzea eta balantzeak Lehendakariari aurkeztea, lan horretarako Udaletxe horretan Kontuhartzailerik ez balego.

22. Art.- 1) AHOLKU BATZORDEA, Udal hauetan dauden euskararen aldeko talde edo erakundeetako ordezkariak osatuko dute. Talde edo erakunde hauen ordezkariak arau hauen arabera finkatuko da UEMAn:

- a) Antolaketa lokala edo nazionala duten euskararen aldeko talde edo erakunde bakoitzeko bina pertsona.
 - b) Kultur munduko edo bestelako antolaketa lokala edo nazionala duten talde edo erakunde bakoitzeko pertsona bana.
- 2) Hautatutako ordezkariak talde edo erakunde bakoitzak libreki aukeratuko ditu bi urtetarako. Hautatu hauek beren ordezkariak izango dituzte, hautatuak bere inizatibak edo bere talde edo erakundeak bultzatua postua uztea erabakitzen badu, hilabeteko epean ordezkaria izan dadin.
 - 3) Beren garrantziarengatik UEMAn gehiengo osoa edo haundiagoa eskatzen duten erabakiek onartu aurretik, Aholku Batzordearen iritzia jaso beharko dute. Kasu horietan Aholku Batzordeak UEMAn Zuzendaritza Batzordearen bileran parte hartuko du, bere ordezkariaren bidez. Bide beretik,

Zuzendaritza Batzordeak edozein unetan aholkua eska diezaioke Aholku Batzordari.

- 4) AHOLKU BATZORDEAk urtero ohizko sei bilera egingo ditu gutxienez, Zuzendaritza Batzordearen eskakizunez, egindakoak barne delarik.

23. Art.- AHOLKU BATZORDEAri dagozkio:

- 1) Euskaraz funtzionatzea erabaki duten Udalerrien berreuskalduntze prozesuan, euskararen normalkuntzarako erizpideak ematea.
- 2) Bertan parte hartzen duten talde eta erakundeen proposamenekin UEMAn parte hartzen duten Udallerri guztiei begira urteko plan bat prestatu eta aurkeztea Zuzendaritza Batzordeari.
- 3) UEMAn parte hartzen duten Udaletan euskara alorrean burutzen diren ekintza ez instituzionalen koordinazioa ziurtatzea.

V. KAPITULUA

Diru Sarrerak

24. Art.- UEMako diru sarrerak honako hauek izango dira:

- 1) Entitate publikoetako diru laguntzak.
- 2) Bere ihardunetatik sortutako diru etekinak.
- 3) Donazioak.

- 4) Udal bakoitzak ezarriko duen diru kopurua azken udal erroldan aipatzen den biztanlego kopuruaren arabera.

25. Art.- Urte amaierako balantzean diru etekinik balego, hurrengo urteko aurrekontua pasatuko da diru kopuru osoa.

VI. KAPITULUA

Beste Udal batzuen elkarteratzea eta kanporatzea

26. Art.- UEMAtik kanpo dagoen Udalerri bat onartzeko, beharrezkoa izango da:

- 1) Azken udal erroldaren arabera, bere biztanlegoaren 80-tik gora euskalduna izatea.
- 2) Udal eta Udalerri mailan euskaraz funtzionatzea.
- 3) Sartu nahi duen Udal Batza osoaren baiezko erabakia, Mankomunitatearen Estatutuak onartuz, bertako kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz, eta hilabete bateko informazio epea pasa ondoren.
- 4) Udal berriaren sarreraren aldeko erabakia hartu behar du UEMAk bere Batzar Nagusiko kideen botuen kopuruaren gehiengo osoz.

Udal sartu berriaren hasierako diru sarrera, teknikoki ezarriko du UEMAk ondasun eta zerbitzu kostoen arabera Zuzendaritza Batzordeak.

27. Art.- UEMAtik kanpora ere borondatez ateratzeko baldintza hauek bete beharko dituzte Udalek:

- 1) Dagokion Udal Batzak gehiengo osoz ateratzea erabaki ondoren, gutxienez hiru hilabeteko aurrerapenaz egingo du eskaera.
- 2) Bere diru ordainketa eginik izan beharko du.
- 3) UEMAtik ateratzeak sortzen dituen gastuak ordaindu beharko ditu, eta baita UEMAK lituzkeen zorretatik legokiokeen zatia.

ALDI BATERAKO ERABAKIAK

Lehena.- Estatutu hauek indarrean jarri eta bi hilabeteko epea barruan, UEMako aginte sailak martxan jarriko dira.

Bigarrena.- Estatutuak indarrean jartzen diren hurrengo egunetik, hilabeteko epe barruan elkartutako Udalerriek bere ordezkari diren kideak izendatuko dituzte eta hauen izen abizen eta helbideak jakin eraziko dizkiote UEMaren idazkariari, zeinaren lana UEMA sortu bitartean BPZ zerbitzuak bete duen.

AZKEN ERABAKIA

Bakarra.- Estatutu hauek, Estatu Frantseseko, Nafarroako eta Gasteizko Gobernuen Mankomunitateen zerrendan erregistratu eta legeztatuko dira.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen Estatutu berriak, aho batez onartu dira.

NOTARITZAK ETA EUSKARAREN ERABILERA

Alkateak hitza harturik, Notaritzak eta Euskararen Erabilerak sortzen dituen arazoak direla, hurrengo idatzia, Nafarroa eta Gipuzkoako Notarien Elkargora bidaltzea proposatu du:

NOTARITZAK ETA EUSKARAREN ERABILERA

Gaur egun, bai herritarrak eta baita erakundeak ere (Udalak kasu), Notaritzetara zerbitzuen eske joatean, ia inoiz ere ez zaie aukerarik ematen zerbitzu horiek (nola hitzez hala idatziz) EUSKARAZ jaso ahal izateko.

Aukera hori gur ustez, Euskal Herriko Autonomi Elkarteko eta Nafarroako Foru Erkidegoko herritar eta Erakundeei legez zor zaiena da, ondorengo Zuzenbide-oinarri hauek frogatzen dutenaren arabera.

ZUZENBIDE-OINARRIAK

- 1.- Indarrean dagoen 1.978ko Espainiako Konstituzioak, bere 3. artikuluan eta 2. atalean hau dio:

"Espainiako beste hizkuntzak ere, ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan berauen Estatutuei dagokien eran".

Era berean, 3. atalean, beste hau dio:

"Espainiako hizkuntz mota ezberdinen aberastasuna, kultur ondarea da eta hura, babesgarri eta begiruneko izango da".

- 2.- EUSKAL HERRIKO AUTONOMI ELKARTEA

- 2.1) Euskal Autonomi Elkarteko Estatutuak, 1.979tik indarrean denak, honako hau dio bere 6. artikuluko 1. eta 2. ataletan:

"1.- Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialaren maila izango du Euskal Herrian".

"2.- Erkidego Autonomoko Erakunde amakomunek, Euskal Herriko egoera sozio-linguistikoaren nabardurak kontuan izanik, bi hizkuntzen ERABILPENA BERMATUKO dute berorien ezagutza eta ERABILPENA segurtatzeko behar diren neurriak hartuz eta bitartekoak jarritz".

2.2) Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legeak, azaroaren 24ko 20/1982koak alegia, bere 5. artikuluko 2.a) atalean, ondorengoa dio:

"Euskal Herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

"Arduralaritzarekin eta Autonomia - Elkartean kokatutako edozein Ihardutze-Sail edo Erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea".

Era berean, bere 26. artikuluan, ondorengoa xedatzen du:

"Euskal Herri-agintariak euskara gizarte-bizitza alor guztietan erabili dadila sustatzeko neurri egokiak hartu eta beharrezko baliapideak jarriko dituzte, herritarrei beren merkataritza, kultura, bazkun, kirol, erlijio eta beste nolanhiko ekintzapidetan euskaraz ari daitezeneko bideak eskaintzeko".

3.- NAFARROAKO FORU ERKIDEGOIA

Nafarroako Foru Erkidegoko abenduaren 15eko 18/1986 Euskararen Foru Legeak, honako xedapen hauek ditu besteak beste:

2.1.- Art.- Gaztelania eta Euskara Nafarroako berezko hizkuntzak dira eta horren ondorioz, herritar guztiek dute jakiteko eta erabiltzeko eskubidea.

- 3.1.- Art.- Herri-agintariak behar diren neurri guztiak hartuko dituzte herritarrak hizkuntzarengatik baztertuak izan ez daitezen.
10. Art.- (Eremu Euskaldunerako). Dokumentu publikoak, egilesleak aukeratutako hizkuntza ofizialean idatziko dira eta egilesle bat baino gehiago baleude, berek hautatzen dutenean.
- Herri-fedemaileek gaztelaniaz edo euskaraz luzatu beharko dituzte kopiak edo lekukotzak ,interesatuak eskatuaren arabera eta beharrezkoa denean beren erantzukizunpean itzuli beharko dituzte jatorrizkoak eta dokumentuak.
- 13.1.- Art.- (Eremu euskaldunenrako). Kopiak eta ziurtagiriak, hizkuntza ofizialeko edozeinetan luzatuko dira.
17. Art.- (Eremu Mistorako). Herritar guztiek dute eskubidea Nafarroako Herri-Administrazioekin dituzten harremanetan euskara nahiz gaztelania erabiltzeko.
18. Art.- (Eremu ez-euskaldunerako). Herritarrei Nafarroako Herri-Administrazioengana euskaraz jardunez joan ahal izateko eskubidea aitortzen zaie, Administrazioek interesatuei eskatu ahal izan diete gaztelaniazko itzulpena edota 9. artikuluan aurrikusitako itzulpen-zerbitzuez baliatu ahal izango dira.
- 4) Logigoki eta aipatu ofizialtasunaren berehalako eta beharrezko ondorio bezala, hala eskatzen den kasuetan HIZKUNTZA ERABILI BEHARRA ondorioztatzen da, eta hau kontuan ez hartzeak, hizkuntza ofizial baten (kasu honetan Euskararen) justifikaziorik ezinezko bazterreratze automatikoa eta berorren deskreditua suposatzen du, bere kultur ondaretza eta aberastasun-jitea direla bide. Jokaera horrek, Konstituzioko 3. artikuluko 3. atalaren arabera zor zaizkion begirune eta babesa hausten ditu.

- 5) Indarrean dagoen Notaritzako Legearen arabera (1. Titulua, 1. artikulua), "Notaria, legeen arabera kontratu eta gainerako judizioz kanpoko ekintzen fede emateko baimendutako herri-funtzionaria da".

Gainera, Notaritzako antolamendu eta erregimen onetsiak dituen 1.994ko ekainaren 2ko dekretuak, bere sarrerako Tituluan, 1. artikuluan, ondorengo dio: "Notariak aldi berean, Zuzenbideko profesionalak eta herri-funtzionariak dira eta izaera bikoitz honi dagokio Notaritzaren antolamendua. Zuzenbideko profesionalak diren aldetik, beren ministraritza eskatzen dutenei aholkularitza eskeintzeko eta berek lortu nahi dituzten zilegiztasunezko helburuak lortzeko bitarteko juridikoak aholkatzeko eginkizuna dute.

Funtzionari gisa, notari-fede publikoa ematen iharduten dute eta..."

Hori guztia dela bide, eta Notariak herritar nahiz Erakundeen zerbitzura dauden funtzionariak direnez, honako hau adierazi eta eskatzen diogu NOTARIEN ELKARGOARI:

Bezeorei (herritar arrunt nahiz Erakundeei) Notarietan euskaraz zein gaztelaniaz, ahozko zerbitzuak izateko aukera eskaintzea eta dokumentu idatziak ere bezeroek nahi duten hizkuntza ofizialean inolako gainkosturik gabe onartu, egin, luzatu eta izapidatzea.

Alkateak luzatu duen proposamena, aho batez onartu da.

IBERDROLA

Energia salmenaren fakturapenei dagokion Prezio Publikorako, Udalerrri honetan 1.994 urtean indar elektrikoaren fakturapenean, Iberdrolak aurkeztu duen zinezko aitortpenaren berri eman da.

1.994 urteko fakturazioa 33.545.491,- pezta izan zen, eta Udalak onartutako araudiaren arabera, 1,5%eko tasa ezarri behar zaio.

Horren arabera, Udaleko Kutxan, 503.183,- pezta sartu beharko ditu, lberdrolak.

Zerga likidazio hori, aho batez onartu da.

LAGUNTZAZKO ARAUEN ALDAKETA PUNTUALA

Julian Zubeldia Aierbe Udalkideak, Hirigintza Batzordeko partaideak, hitza harturik zera dio:

Gaur egun oraindik ere bete ezin izan diren, Arau Subsidiarioetako aurrikuspenetako bat -gizartean duen eraginaren ondorioz, interes publiko haundienekoa-, Hiri-Lurzoruko 3. Arean kokatutako babes publikodun erregimenpeko etxebizitzaren eraikuntza izan da.

Hirigintza-erabaki hau betetzea eragozten duten oinarrizko arrazoiak, ondokoak dira: batetik, duela 5 urte eta gehiago ezker 3. Arearen jabeek Udalarekin duten auziari buruz erabakitzeko epaitegien ulertezinezko atzerapena dugu. Bestetik, egoera hori behin betirako konpondu ahal izateko, jabe hauen eta Udalaren arteko akordio edo adostasun falta.

Aurrekoaren ondorioz, Lizartzako Udalak laguntza gutxien duten famili ekonomiarekin bat datozen herritarren eskariak betetzeko irizpideari heltzen dio, eta berriz ere planeamendu orokorraren dokumentuari aldaketa puntuala egitearen komenigarritasuna aztertzen du, Arau Subsidiarioetan aurrikustako helburuak betetzen direla bermatu ahal izateko.

Aldaketaren edukia eta irispidea

Arau Subsidiarioetan aurrikusten denez, Hiri-Lurzoruko 4. Area Hiri-lharduetaren bi Unitateetan banatuta dago: 2.300 m²dun H.I.U, 4.2.an, igeritokiaren kirol-ekipamendua dago, eta hau desjabetzapen sistemaren bitartez burutuko da.

Hiri-Lurzoruko 3. Areari dagokionez, planeamendu-tresnari jarraiki, babes publikodun erregimenpeko 38 etxebizitza eraikitza zuzendua dago, eta desjabetzapen sistema erabiliko da.

3. Arearen inguruan arestian aipatutako aurrikuspenen eraginkortasunari buruz deskribatutako arazoaren ondorioz, eta Udalak dagoeneko H.I.U. 4.2 osatzen duten lursailak bereganatu dituela kontuan hartuz, hasiera batean 3. aurrikusten ziren babes publikodun etxebizitzak kopuru bat, H.I.U. 4.2.aren azalera eremura lekualdatzea proposatu da; beraz, H.I.U. 4.2.an kokatutako igeritokien kirol-ekipamendua, 3. Arean birkokatzen da.

Bi ihardueketak aurrera eramateko sistema, desjabetzapenaren bidezkoa izaten jarraitzen du, eta hiri-eragiketa horrek, aurrikusitako komunitate-ekipamenduari kalterik egin gabe, babes publikodun erregimenpeko etxebizitzak berehala egitea bideratzen du.

H.I.U. 4.2.an ahalil eta tankera horretako etxebizitza gehienek eraikuntza erraztekoan (22 etxebizitza gutxi-gora-behera), unitate honen mugapena aldatzeari ekin zaio, egun H.I.U. 4.1.ean dauden) lursailek 4.2.koari gehituz.

Aldi berean, 3. Arean egin beharreko igeritokien komunitate-ekipamendua, 3. Area berortan kirol-ekipamendu berri eta osagarriak aurrikusiz osatzen da, horrela orokorki herritar guztien zerbitzura eta partikulari bertako ikastetxenera egongo den kirol-instalazio anitzak hiriguneari eskainiz. Dena den, 3. Arean babes publikodun erregimenpeko etxebizitzak aurrikuspenak bere horretan jarraitzen du, bere kopurua 18 etxebizitzak ingurukoa izanik.

Proiektu hau betetzeko, beharrezkoa da lehenik eta behin Arau Subsidiarioetan adierazitako aurrikuspenak aldatzea, proiektu honek planeamendu orokorreko tresneri propioak diren ondoko erabakiei eragiten baitie: hiri-lurzoruaren planaren egitura orokorraren zaitak definitzeari (Lurzoru eta Hiri-Antolamenduari Buruzko Legearen Testu Bateratuaren 71. artikulua) -delako zati hauek, hiriguneeen mugapena komunitate-ekipamenduen sistema orokor gisa egiteagatik integratu dira-, zehaztutako erabilera eta tipologia eta zona ezberdinei dagokien intentsitate-mailak esleitzeari, babes ofizial edo bestelako sustaketa

publikodun erregimenpeko etxebizitzak eraikitzea xede duten lursailak sailkatzeari....

Planeamendu Erregelamenduaren 125 artikuluan xedatutakoari jarraiki, Lizartzako Udal-Planeamenduaren Arau Subsidiarioen aldaketa puntualari buruzko irizpide, irtenbide eta helburu orokorrak dituen dokumentua, hogeitamar eguneko epean, jende aurrean jartzea proposatu du.

Eztabaidatu ondoren, proposamena, aho batez onartu da.

RETEVISION

Alkateak hitza harturik, zera dio:

Aurreko egun batean, Retevision.eko partaide batzuk, harremanetan jarri ziren Udal honekin, Lizartzako Repetidorean, Antena 3, Tele 5 eta Canal Plus jartzeko, behar diren pausoak aurrera eraman ahal izateko.

Orain direla 14 bat urte inguru, Repetidorearen erabilera, Usufruktoan, Retevision.i eman zitzaion. Baina gaur egun, orduan emandako usufrukto horrek ez dietela balio eta, Erabilera Zesioa egitea proposatu dute.

Hori dela eta, Lizartzako Repetidorearen Erabilerako Zesioa, Retevision.i egitea eta, hori burutzeko beharko diran kontratoak sinatzeko, Belen Zabala Olano, Udaleko Alkateari, ahalmen guztiak ematea, aho batez onartu da.

JOXEAN LASA ETA JOXI ZABALAREN KASUA

Lizartzako Herri Batasunako zinegotziak, Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren kasuaren azken gertakariak direla eta ondoren azaltzen den mozioa aurkezten dute, Osoko Udal Batzarrean eztabaidatu eta onartua izan dezan.

MOZIOA

1.983an Baionan bahituta izan ziren Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren gorpuen identifikazioak garbi utzi ditu erahil izan aurretik basatiki torturatuak ere izan zirela. Prentsara atera izan diren ikerketa judizialako datuek bestalde nahikoak dira baieztatzeko hasieratik susmatu eta salatzen genuena: Espainiar estatuaren eta beren aparatuen inplikazio zuzena krimen honetan hain zuzen ere, Guardia Zibilaren papera agerian jarriaz. Felipe Gonzalezen gobernuen erantzunkizunak kasu honetan eta GALek egindako beste erahilketetan argitu eta depuratu beharra dago. Badago momentu honetan borondatea izanez gero GALen auzia erabat argitu daitekeela pentsatzeko arrazoi nahiko. Horregatik, Lizartzako Osoko Udal Batzarrari mozio hau onartu dezala, proposatzen zaio:

- 1.- Osoko Udal Batzar honek gogor salatzen du Joxi Zabala eta Joxean Lasaren bahiketa, tortura eta erahilketa. Zentzu honetan gertakaria behin betikoz argitzea esijitzen die auzia dagokien instituzioei behar diren pauso guztiak eman ditzaten. Zentzu horretan, Gobernu Espainiarrari dagozkion erantzunkizun penal, politiko eta pekuniarioak erabat argitzea esijitzen du.
- 2.- Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Gobernuak eta bereziki Barne Sailak daukan informazioa GAL kasuaren inguruan argitzea ere esijitzen diogu.
- 3.- Estatu Espainiarreko Gobernuko Lehendakariari eta Gobernu horren Barne Ministrariari Joxi Zabala eta Joxean Lasaren bahiketa eta erahilketaren inguruan daukaten informazio guztia eskatzea.
- 4.- Berdin Frantziako Barne eta Justizia Ministerriari dagokienez.

Joxean Lasa eta Joxi Zabalaren Kasuari buruzko Mozioa, aho batez onartu da.

IKERKETA ESPEDIENTEAREN HASIERA

Nekazaritza Batzordeko partaidea den, Jose Antonio Mintegi Arrate Jaunak, hitza harturik, zera dio:

Inaxio Altuna Arruabarrena, Joangi Baserriko Jabeak erositako, AXOLA-BEHEKOA izeneko terrenoa erosi ondoren, terreno hori, itxi egin du, berak esaten duenez, bere eskrituretan azaltzen diren m2.ak hartuaz.

Udal honek dituen datuak aurkeztu ondoren, terreno horrek ez ditu hainbeste metro, eta herriari dagozkionatitik hartu ditu.

Hori dela eta, arazoa konpondu ahal izateko, Udal honek, Ikerketa Espedientea Hastea proposatu du.

Eztabaidatu ondoren, proposamena, aho batez onartu da.

ALKATETZAREN DEKRETUAK

Ikusirik, Artetxe-Burua, Lizardi eta Orexa Aldeko lurretan landatutako pinuak ateratzeko Lizartzako Udalak 1.994-04-18an luzatutako Dekretuaren aurka ezarritako 3396/94 zenbakidun errekurtsioa.

ERABAKI DU:

- 1.- 1.994eko urriaren 14ean egindako Bilkuran hartutako erabakiaren arabera, Udalaren defentsa letratua, aurreko abokatu eta prokuradoreei ematea:

ABOKATUA: FELIPE GOMEZ ARRIARAN

BILBOKO PROKURADOREA: ALBERTO ARENAZA ARTABE

MADRILEKO PROKURADOREA: ENRIQUE DE ANTONIO VISCOR

- 2.- Hurrengo Bilkura Nagusian, Udal Batzarrari Ebazpen honen berri ematea, bere ratifikapenerako.

Obra Baimenak

Nati Urdanpilleta Andreari, bere etxeko sukaldeko eta bainu gelako konponketarako baimena eman zaio.

Jose Antonio Zeberio Artola Jaunari, Etxeberri Baserriaren fatxada zarpeatu eta pintatzeko baimena eman zaio.

Juan Garziarena Aurkia Jaunari, Garaikoetxea Jatetxearen parean, errepedearen bestaldean dagoen txabolari erretila eman eta hainbat konponketa egiteko baimena eman zaio.

Jose Antonio Garaikoetxea Esnaola Jaunari, Basaitzene baserriko etxeari lehengo etxe zaharraren zati bat erantsita dagoenez, zati hori konpondu nahi da, erretila emanaz eta blokeekin itxiaz.

Asintxio Eizagirre Treku Jaunari, Zortzikoa Etxearen Fatxada pintatzeko, baimena eman zaio.

Liburutegiko Ekipamendua

Aurreko urtean adjudikatu baino egin gabe gelditu zen Liburutegiko Ekipamendurako, Pablo Etxeak aurkeztutako, 2.586.371,- peztatako Aurrekontua onartu zen.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamar t'erdia direnean.